



## FUNTZIONAMENDU ARAUAK

### Unitate funtzionala – BARNEKO MEDIKUNTZA

#### GUREAN ZAUDEN BITARTEAN JARRAITU BEHARREKO ARAU OROKORRAK

- Eskatu laguntza, behar duzun guztietan. **Dei egiteko beharrea bazaude, ERABILI GELAKO TXIRRINA.**
- Egunero pijama edo ohe-atorra jasoko duzu. Norberaren garbitasunerako, bainugela duzu gelan, dutxa eta guzti.
- Geletako komunak pazienteentzat dira. Laguntzaileentzako komunak igogailuak dauden tokian daude.
- Pazienteentzako segurtasuna dela medio, ospitaleratzeko unitateetan ezin dira sartu landare naturalak edota artifizialak (plastiko, kartoi eta abarrezkoak), lurduak edo lurgabeak.
- Ospitalean ISILTASUNA behar dugu. Lagun iezaguzu hori lortzen.
- Norberaren datuen babeserako 2018/3 Lege Organikoaren arabera, ezin dizugu ingresaturik dagoen inorri buruzko informaziorik eskaini, zuri dagokizu non dagoen jakitea.
- Ospitaleak ez du zure objektu pertsonalak bere gain hartuko.
- 9:00etatik 13:00etara laguntzaileek unitatetik kanpo irten behar izango dute. Beharrezkoa izanez gero, paziente bakoitzeko pertsona bat egon daiteke. Debekatuta dago unitateko korredoreetan geratzea.

#### MEDIKUAREN IKUSTALDIA / SENIDEEI INFORMAZIOA



- Igandean eta jaiegunetan izan ezik, egunero. 10:00etatik 13:00etara gutxi garabehera.
- Bisitak dirauen artean, familiarrekoak korridorerara aterako dira.
- Medikuek, bisita bukatutakoan, gaixotasunaren eboluzioaren berri, emango dizue.

#### OTORDUAK



9:15ean	Gosaria
13:15ean	Bazkaria
17:15ean	Merienda
20:15ean	Afaria

#### BISITAK

- 14:00etatik 21:00etara.
- **Pazienteko 2 pertsona, gehienez.** Nahi izanez gero, senide bat zurekin 24 orduz egon daiteke

#### BESTE GAUZA JAKINGARRI BATZUK



Kerik gabeko erakunde batean zaude. Hemen ezin da tabakorik erre edota zigarro elektronikorik erabili (baita aparkaleku, lorategi eta kaleetan ere).



Ospitalean sartu izanaren **egiaztagiria** behe solairuko harreran emango dizute (datu gehiago behar baduzu, jar zaitez harremanetan pazientearen ardura duen medikuarekin).



#### **TXAGORRITXU OSPITALEKO TELEFONO ZENBAKIA: 945-007000**

8:00etatik 22:00etara, logelan deiak jaso daitezke, telefono honetara deituz: 945000882.

**Kanpora deitzeko, logelatik, telebistako txartelaren bidez ere deitu dezakezu.**



**Telebista-zerbitzua** ez da ospitalearen berezko zerbitzua. Erabiltzeko, txip-txartela eta entzungailuak behar dira; atarian duzu tresna horiek lortzeko makina (dena den, zure entzungailuak ere ekar ditzakezu, nahi izanez gero). Txartelak duen diru-kopurua ez da itzuliko, baina ez dauka iraungintze-datarik, hortaz berriro erabil daiteke. Matxuraren bat gertatu edo behar izanez gero, deitu 1422 edo 636 46 59 37 telefonora.

Telebista eta telefono-ekipoak sistema berean integratuta daudenez, ezin dira telebistak deskonektatu, telefono-zerbitzua ere automatikoki deskonektatuko litzateke eta.



#### **KAFETEGIA Ordutegia: 8:00etatik 22:00etara.**

Kafetegia erdisotoan dago.

Solairu batzuetan kafe eta freskagarri makinak daude, igogailuak dauden hallean, hain zuzen.



**OSPITALEKO ALTA:** Ahal dela, bezperan emango zaizu horren berri. Komenigarria da alta egunean senideren batekin izatea.

Altaren egunean komenigarria da gela uztea txostena jaso ostean, behar duten pazienteentzat ohea prestatzeko.



#### **Laguntza erlijiosa eta espirituala:**

Ospitaleak zerbitzu erlijioso katolikoa du Kapean (1. solairuan). **Erljio-laguntzako ordutegi** berria 9etatik 17etara izango da egunero.

Beste erlijio batzuetako pazienteek eta senideek laguntza eskatu diezaioke euren arimako maisuari.

**PAZIENTEAREN ZAKO ETA ERABILTZAILEAREN ZAKO ARRETA ZERBITZUA (SAPU).** Zerbitzu horren beharra izanez gero, Unitateko gainbegiralearen bidez eska dezakezu. **Ordutegia:** 9:00etatik 14:30era (astelehentetik ostegunera).